

# BADATOR EUSKAL ZINEMAREN UZTA BERRIA

Film laburretan eta fikziozko film, kontakizun experimental eta batez ere dokumentalen alorrean urte oparoa izan da 2016a: *Oihalak adarretan*, *Gaur irekiko ditu atek*, *Pedaló*, *Sipo Phantasma*, *Mara-Mara*, *Irrintziaren Oihartzunak*, *Gure hormek*... Hurrengo hilabeteetan ere izango da euskal ekoizpenik, 2017ko uzta berrian. Zeintzuk dira estreinatuko diren izenburu aipagarrienak?



Gaizka Izagirre

@Gaizka\_Izagirre

Abenduaren 12an hasi zuten *Errementari* filmaren grabaketa. Jose Migel Barandiaranek jasotako *Patxi Errementaria* herri-ipuinaren moldaketa librea izango da, Kandido Uranga, Eneko Sagardoy, Joxean Bengoetxea eta Ramon Agirre protagonista. Paul Urkijo zuzendari gasteiztarraren lehen film luzea “errementari zital bati buruzko baserri giroko ipuina izango da: gizona hain da gaiztoa ezen deabruak ere beldur dioten”. Urkijok lau urte daramatza txikitatik bere ipuin gogokoena izan den horretan lanean; “betidanik egin nahi izan dut horri buruzko pelikula bat”.

Filmaren beste berezitasunetako bat hizkuntza da: galduta dagoen euskalki baten traza eman diote, Arabako euskararena. Euskalki hori berreskuratze-ko eta ulergarri egiteko, Koldo Zuazo hizkuntzalariaren laguntza izan dute. Estreinaldia 2017ko udazkenerako aurreikusten da.

## **Aundiya: mitoa eta errealtatea**

*Loreak* eta *80 egunean* filmak sortu dituen Moriarti ekoiztetxea dago *Aundiya* filmaren atzean ere. Kasu honetan, zuzendari lanetan Aitor Arregi eta Jon



Garaño ariko dira, “Altzoko Aundiya” ezizenez ezaguna egin zen Migel Joakin Eleizegiren istorioa pantailaratzeko. Bere gorpuzkera handi eta berezia zela-eta, Espainia, Portugal, Frantzia eta Ingalaterrako Gorteetara eraman zuten Altzon jaiotako gizona, errege-erreginek ikus zezaten. Mitoaren eta errealtatearen inguruko gogoeta eskainiko da pelikulan. Ramon Agirre, Eneko Sagardoy, Joseba Usabiaga, Aia Kruse, Iñigo Aranburu eta Iñigo Azpitarte aktoreek parte hartu dute, besteak beste. *Loreak* en ibilbide oparoa errepikatze-ko gai izango dira?

## **Sorpresaren zain**

Ezin ahaztu Aitor Bereziartua zuzendariaren lehen lana izango dena, *Lisbeth*. Aranzadirekin elkarlanean sortutako proiektua da, Olatz Retegi Recalde antropologoaren laguntzarekin. 1947an Donostiako Bidebieta auzoko baserri batean jaiotako emakumea du protagonista; gerraosteko errepresio kultural, politiko, ekonomiko eta linguistikoa hurbiletik jasan zuen. Dokumental honen bitartez, iraganaz hausnartu nahi du zuzendariak. Testigantzak eta frogak

bilduko dituzte, txikitik abiatuta, gaia era zabalean lantzeko. Intentzioa apiril-eko Donostiako Giza Eskubideen zinemaldian estreinatzea da.

Estreinaldi ofiziala iaz izan zen, baina oso zabalkunde txikia izan zuenez, ea aurtzen Iratxe Mediavillaren *Argi* ikusteko aukera dugun. 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetako Elorrioren kokatutako istorioa kontatuko digu.

Ezin ahaztu Lekeitioko 39. Euskal Zine Bileran ikusitako film labor eta dokumentalak ere. Tartean Natxo Leuzaren *N'Diawaldy Bouly*, Begoña Vicarioren *Beti bezperako koplak* eta Maite Bidarte eta Koldo Garciaren *Karta astrala*.

*Aundiya* eta *Errementari* tituluek dirudite, aurretik begiratuta behintzat, izenburu “potoloenak”, baina ez ahaztu iazko sorpresetako bat inork espero ez zuen abentura nautiko surrealista izan zela (*Pedaló*). Erne beraz datozen aspetean iragarriko dituzten film berriei, eta, batez ere, irailean Donostiako Zinemaldiko Zinemira sailean ikusi ahalko ditugun ezustekoei. Euskal Zine Bileran omendu zuten Benito Ansolak esan zuen bezala, “garrantzitsuena da zinea egitea eta euskaraz egitea”. ■